

## **Ikastolaren haurminak**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1997-08-24: 3.

Ikastolaren historiak badu historiaurrea: Landeta eta Campionen lehen lanak; Azkuek 1896an ireki zuen bere ikastetxea; Miguel Muñoak 1914an sortu zuen Donostian Koruko Andre Mariaren ikastetxea, eta han hemenka Tolosan (1922) eta Soraluzen, Bergaran, Iruñean eta Lizarran, banan-banan, umeak bezala. Bizkaiko Diputazioak 1920-1932 tartean 125 auzo eskola sortu zituen, eta Bilbon bertan erakunde bat: Eusko Ikastolagatza (1932). Laburki, hau da historiaren aurrea gerra lehertu ziguten arte. Gerra ondoan Elvira Zipitriak gela prestatuan hasi zuen funtsezko lan berria, gaurko ikastolen lehen jaioa, eta beste andereño batzuek jarraitu zioten 1950ko hamarkadan; hurrengoan zabaldu ziren ikastolak Bilbon (1957), Iruñean (1963), Gasteizen (1966), eta 1970ean legez onartuak izan eta gero erakunde autonomikoaren laguntzarekin joan da historia eder eta latzean gaur artekoa jorratzen. Baina bada oraindik Euskal Herrian bere hastapenetan ari den lurralderik: Zuberoan ari da justu Eperra ikastola erretzen une honetantxe, eta zenbait minekin eta pozekin dator haur hau ere! Hau da gure esperientzian gogoan gorde behar duguna: presiope handian lortu ditugula euskaldunok lorpenik justuenak ere. Estatu zentralistek beren hizkuntzen menpe nahi gintuzten eta nahi gaituzte beti, orain ere, eta bakea aldarrikatzen dutenean bertan, berea dutela kontuan beti, eta ez gureganako justizia konpartitua. Amaitzeko, zaku bakar batean, nola?